

2001eko EKAINAREN 4ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta bateko ekainaren lauean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Nerea Altuna Zubeldia, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

2.- INSALUS. IGOKA ESPEDIENTEA

Agua de Insalus S.A.k, herri honetako A-5 Arean, Ur Natural Mineralaren Ontziraketa jartzeko eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, UR NATURAL MINERALAREN ONTZIRAKETA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DA:

1.- AGUA DE INSALUS S.A. baimentzea, herri honetako A-5 Arean, Ur Natural Mineralaren Ontziraketa jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu,

Etxabizitza eta Ingurugiroak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik.

A) BALDINTZAK

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Agua de Insalus S.A.k, Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

3.- EUSKARAREN ERABILERA PLANA

2001eko Otsailaren 19ko Bilkura Nagusian, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planari, behin behineko onarpena eman zitzaion.

Bertan erabaki zen bezabala, Planaren Eusko Jaurlaritzako Euskara Planetarako Sailera bidalia izan zen, zegokion txostena luzatu zezaten eskatuaz.

2001eko Martxoaren 23ko datarekin, Lizartzako Udaleko Euskara Planari buruz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak txostena luzatu du.

Guzti horren arabera, LIZARTZAKO UDALEKO EUSKARAREN ERABILERA PLANARI behin betiko onarpena ematea, aho batez onartu da.

4.- 2001 URTEKO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA

Lizartzako Udal honen 2001eko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 22.288.853,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondon Kontuhartzaitza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

5.- KREDITU OPERAZIOA

Kontuhartzaileak luzatutako txostenarekin bat datorren, Altxortegiko perazio bat kontzertatzeko osatu den espediente aztertu eta adosturik, eta, Abenduaren 28ko, 39/1988 zenbakidun, Tokiko Hazienda Legearen 52 eta 53 artikulua ikusirik, Udal Batzarrari proposatu zaio:

E R A B A K I A

- 1.- kredituzko Entitate batekin, epe motzerako, HAMABOST MILIOI (15.000.000,-) pezetako kreditu bat kontzertatzea, gehieneko HAMABI HILABETETAN kantzelatuko dena, baldintza hauetan:

Interesa: Hiruhilabeteko EURIBOR + 0,35% = 4,881%

Irekiera Komisia: 0,25%

2.- Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jauna ahalmentzea, behar diren agiriak formalizatzeko.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- SENIDEAK-GUREAK ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

SENIDEAK-GUREAK Elkarteak (Euskal Preso, iheslari eta deportatu politikoen senitartekoon Elkarte) eta herri honetako taldeak idazki honen bitartez ondorengo MOZIO hau aurkezten dute Lizartzako Udal Txit gorenak datozen egunetan burutuko duen Udalbatzarrean onartua izan dadin:

MOZIO HONEN ARRAZOA

SENIDEAK-GUREAK Euskal Herriak bizi duen gatazka politikotaz kezkatuak, bere horretan iraun ez ezik, areagotu ere egin dela ikusita, euskal errepresaliatu politikoen senitartekoen izaera eta konpromezua abiapuntu izanik, bitarteko demokratiko, erreal eta eraginkorrak lortzeko deia egiten dugu, Irlandan gertatu den legez. Hauek baitira Euskal Herriko eta Irlandako gatazka historikoak behin betiko konpontzeko giltzarri nagusia.

Giltzarria bilatzeko orduan ezinbestekoak dira hausnarketa eta elkarrizketa. Hausnarketa gatazkaren iturriak zein ezaugarriak ezagutzeko, hau da, nahitaezko aurrepausa balizko konponbideak proposatzeko. Elkarrizketa estrategia demokratiko amankomuna adosteko.

Zentzu horretan, Senideak-Gureak elkarteak pozik dago elkarrizketetan oinarritutako esperientzi garrantzitsuen bultzatzaile izateaz

gain, parte aktiboa hartu duelako: Maroño, Altsatsu, Ibaeta, Lizarra, Batera horren lekuko dira.

Beraz, jakin badakigu gatazketan inork ez duela arrazoi osoa, baizik eta denok dugula arrazoiren parte bat. Hau dela eta, ezinbestekoa da arazoan analisi objektiboena burutzea irtenbidea errezago bilatzeko. Hau hala izanik, interesgarria iruditzen zaigu aipatzea, besteak beste:

Euskal Herriak egun bizi duen gatazka sakonki errotuta dago historian. Gatazka, bi norabideetan zabaldu da. Alde batetik Euskal Herriko instituzio eta bizimoldearen defentsan, nortasun propioaren bilakaera iraunkorra, zeinek Madrid eta Pariseko gobernuen interesekin talka egiten zuten. Eta beste aldetik, Euskal Herriko populuan emandako zatiketa. Interes eta talkaren ondorioek sortzen zituzten aukera desberdinak bere isla zuen orduko Euskal Herriko biztanlegoaren artean. Batak zein besteak, era, dikotomia eta intentsitate desberdina hartu dutelarik mendeetan zehar. Baina beti Euskal Herriko egitura sozial, ekonomiko eta politikoak ederki astinduz.

Gatazka gehienek bortizkeri adierazpena izan dute, bai erasotzaileen eta baita erasotuen aldetik. Elkarrizketa eta itunerako aukera ez da izan, gerra dinamika (garaipen edota galera) soilik. Ezaugarri hau gobernu espainiarrek zein frantsesek eta hauen armadek mantendutako jarrerekin estuki lotuta dago. Itxasoz bestaldeko.

Egoera honek ondorio larriak utzi ditu, Euskal Herrian denon ezagutzen eta pairatzen ditugunak: hilak, desagertuak, iheslariak, atxilotuak, presoak, torturatuak, erasotuak errealitate mingarriak eta orobatekoak.

Honengatik, guztiagaitik, bi ondorio ateratzen ditugu euskal errepresaliatu politikoen senitartekook:

- Kotsentsu politiko berri baten beharra, non aukera guztiak posibleak izango diren, non aukera guztien parte hartzea posiblea izango den, non Madrid eta Parisek Euskal Herriko biztanlegoaren erabakiak onartuko dituzten. Hau da,

kontsentsu bat non gure etorkizuna askatasunez erabakitzeko aukera izango dugun. Honen ukapena baita atzo eta egun bizi dugun gatazkaren eragile nagusia.

- Historian zehar Espainiako eta Frantziako gobernuek erabilitako neurri errepresiboek, atxiloketak, tortura, heriotz-zigorak, hilketak, desagerketak, espetxe-zigorak, exilioa etab. Alferrikakoak izan dira eta dira gatazkari amaiera emateko. Honez gain, errepresaliatuei zuzendutako irain, tratu txar eta laidoek ez dute ezertan laguntzen, ezta presoak beren ingurunetik urrutiratzeak ere.

Aurrekoa adierazi ondoren, Senideak-Gureak elkarteak, eta gatazka konpontzeko bide iraunkorrak sortzeko ahaleginetan zintzoki diharduen edozein erakundek, ezinbestean onartu beharra daukagu neurri errepresiboek ez digutela laguntzen gatazkari amaiera aurkitzen, gatazka areagotu eta konfrontazio-jarreak zilegiztatu besterik ez baitute egiten. Izan ere, urterik urte neurriok behin eta berriro erabili izan badira ere, alferrikakoak izan dira beti, gatazkak berak eta gatazkak berekin dakartzan ondorio mingarriak ere bere horretan jarraitzen baitute. Gatazkaren konponbidea aurkitzeko orduan, ondorioek ez dute inolako baldintzarik jarri behar. Aldiz, gure ustez, egoera larriak konponketaren bultzatzailek izango beharko liriateke.

Honengatik guztiarengatik, SENIDEAK-GUREAK elkarte oso kezkatua dago egun ematen ari diren hainbat fenomenoaren aurrean eta ASKI DELA adierazi nahi dugu:

- Aski dela gatazka honetako gertakizun mingarrien aurrean maltzurkeriaz jokatzeari. Halako jarreraren helburu bakarra gatazka eragiten duten kasuak ezkutuan gordetzea eta gatazka luzatzea da, eta gatazkari konponbidea emateko bitartekoak eratzea eragozten dute.

- Aski dela gatazkan parte hartzen duen alde bat kriminalizatzear. Elkarri irainka ibiltzeak ez du ezertan laguntzen konponbidea bilatzeko garaian, horrek konfrontazioa areagotu besterik ez du egiten.
- Aski dela alde bakarreko biktimismo errazaz, eta biktimismo hori konfrontazio-bideak zilegiztatzeko erabiltzeaz, gatazka honetan denok baikara biktima.
- Aski dela sufrimendua eta oinazea erabiltzeaz, gehien sufritzen dugunok baikara egoera hau konpontzeko irrika handiena dugunok, baina benetako konponbide eraginkor, demokratiko eta iraunkorra lortuaz.
- Aski dela epelkeriaz, hipokresiaz, konpromisorik ezaz, hitz-jario errezez, bakar batzuen interesez, eta hauek guztiak denontzat hain mingarria den egoeraren konponbidearen aurretik jartzeaz.
- Aski dela euskal errepresaliatu politikoei eta beren senitartekoei txantajea egiteaz eta haiek politikoki erabiltzeaz.
- Aski dela giza eskubideez eta bizi-eskubideak hitz egiten dugunean arinkeriak eta arbitrariotasunez jokatzear, urratutako eskubide indibidual zein kolektiboei muzin egiteaz, eskubide horiek nork bere interesen onerako erabiltzeaz, eta eskubideok unean uneko interesen arabera ukatu ala onartzeaz.
- Aski dela BAKE hitzaren erabilera egiteaz, hitz horren benetako edukia ezabatu eta konfrontazioa sortzeko erabiltzen baita, bizi dugun gatazka honetan dauden indarkeria adierazpide guztiak ukatu ala onartzeaz.

Senideak-Gurek, euskal errepresaliatu politikoen senitartekoen elkartea garen aldetik, dei egiten diegu arlo sozial, politiko eta instituzionalean diharduten eragileei, beren interes partikularrak albo batera utzi eta orain artean ez bezelako proposamen erreal eta ausartak eginez, gure herriak bizi duen sufrimendua eta oinazea gainditzeko esparrua sortu eta sendotu dezaten.

Zentzu honetan eta herritar gehienek babesa jaso dugulako Udalbatza honi ondoko aldarrikapen hauekin bat egin dezan eskatzen diogu:

- 1.- Euskal Herrian bizi dugun gatazka, izaera politikoa duen Gatazka dela aitortzen dugu.
- 2.- Arazo politikoaren soluzioa, soilik politikoa izan daitekenez, Gatazka areagotu eta tenkatzeko baino balio ez duten neurri errepresibo guztiak amaitzea esijitzen dugu.
- 3.- Gatazka Politikoaren ondorioz espetxean, exilioan edota deportazioan aurkitzen diren gizon eta emakumeak, Estatuto Politikoa zor zaien preso, exiliatu eta deportatu politikoak direla diogu.
- 4.- Euskal preso, iheslari eta deportatuei dagozkien oinarritzko eskubideak, zein Eskubide Politikoak, aintzakotzat hartu eta errespetatuak izan daitezela aldarrikatzen dugu.
- 5.- Euskal Preso Politiko guztiak berehala Euskalerriratu eta euskaldun orok Euskal Herrian libre bizitzeko duen eskubidea errespetatu dadila esijitzen dugu.
- 6.- Gatazkaren konponbide politikoa, demokratikoa eta nazionala gauzatzeko, elkarrizketa politikoa eta Euskal Herritar guztiok libreki geure etorkizuna erabaki ahal izateko Eskubidea aldarrikatzen dugu, zeinen muga bakarra, euskaldunok adierazitako borondate librea izango den.
- 7.- Horrela, bazterketarik gabe, aukera politiko oro eta euskal eragile politiko eta sozial guztiak aintzakotzat hartzea ezinbestekoa dela diogu, egungo egoerari elkarrizketan oinarrituriko irtenbide demokratikoa eman ahal izateko.

Senideak-Gureak Elkartek aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

PEDRO MARIA BALERDI ZALAKAIN

Goiz Argi Etxea, 22 – 1.go ezk.an obra egiteko baimena.

ARRATE BASERRIKO JABEAK

Arrate Baserriko Jabeak, H20550323 NIF zenbakidunak, 2001eko otsilaren 16ean eskaria aurkeztu duela; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, aurreago aipatzen den lurzatiaren bereizketa egiteko:

Etxeatzea izeneko 141,15 m² dituen lur zatia. Lur hori gaur egunean, Hiri zorua da, eta Arrate Baserria izeneko eriakuntzarekin batera saldu nahi da.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinariaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketa ezin dela hirigintza-partzelazio gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, zatiketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da. Hori bati, zatituko den lur sail horretan, ezingo da inolako eraikuntzarik burutu.

JUANA EIZAGIRRE TREKU

JUANA EIZAGIRRE TRECU Andreak, NAN 15.218.068 zenbakidunak, 2001eko Urtarrilaren 24ean eskaria aurkeztu duela; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, aurreago aipatzen den lur zatiaren bereizketa egiteko:

Goiz Argi etxearen aurrekaldean dagoen lurra, erabilera aparkalekua duena, 336,6 m² dituen partzela. Lur hori gaur egunean, Hiri zorua da, eta lur horretatik, 32 m²ko zatia (8 x 4) bere senide bati eman nahi dio.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzean da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketa ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, zatiketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da. Hori bati, zatituko den lur sail hori ezingo da aparkalekurako ez den beste ezertarako erabili, eta noski, ezingo da inolako eraikuntzarik burutu.

JOSE ANTONIO BALERDI URDANPILLETA

Malenburun dagoen eta erabiltzen duen txabolaren berrikuntzarako baimena ematen zaio, baldintza hauekin:

- Txabola hori konpontzeko baimena, behin-behingo (noiz nahi uztekotan) izakerarekin emango zaio, beraz, txabola hori botatzean, ez da inongo kalte-ordainik egongo.

- Teilatua egurrez egina beharko luke, kanal gorriaz bukatuta.
- Fatxadaren ixtura blokearekin edo ladrilloz egingo da, masa zarpeatua eta txuriz pintatua.
- Lizentzia, hirugarren baten jabetza-eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe, emango da.
- Baimena eman eta 3 hilabeteko epea izango da obra hori egiteko.

MARIA GARMENDIA GARMENDIA

Zubiaurre Etxea, 4.a ezk.ko etxean leiho aurrekaldeak konpontzeko baimena.

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Plaza Soro, 11-A etxeke lorategian, baldosain pasabidea egiteko baimena.

ZUBIAURRE ETXEKO JABEEK

Zubiaurre Etxeko sarrerako kanpoko eskailerak konpontzeko baimena.

JONE ZUBELDIA ALTUNA

IKUSIRIK.- JONE ZUBELDIA ALTUNA Andereak, Herri honetako Kale Nagusia, 15ean dagoen Eraikina Eraberritzeko, Javier Puldain Huarte Arkitekto Eragileak osatutako, gauzatze proiektua aurkeztuaz, eginiko obratako baimen eskaera.

IKUSIRIK.- Teknikariek eginiko txostenak.

Horren arabera, zera

ERABAKI DUT: JONE ZUBELDIA ALTUNA Andereari, aurkeztutako gauzatze proiektuaren arabera, Herri honetako Kale Nagusia, 15ean dagoen Eraikina eraberritze obrak gauzatzeko, BAIMENA ematea.

BALDINTZAK

- 1.- Ebazpen hau, hirugarren baten jabetza errespetatu eta horren kalterik gabe luzatzen da.
- 2.- Indarrean dauden lege eta raudiek ezarritako segurtasun neurri guztiak bete beharko dira.
- 3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.
- 4.- Ebazpen hau luzatzeak, ez du ematen inolaz ere, IGOKA behar duten aktibitate edo establezimenduen irekiera baimenik.
- 5.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko da. Obren luzapena, 8 hilabetetan irizten da.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

- 6.- Etxebizitzen lehen erabilerak, berariazko Udal baimena beharko du.

BALDINTZA BEREZIA

- 1.- Estalkiaren planuak aurkeztu beharko dira, non, estalkira irisgarritasuna ahalbideratzen duen irekidura jaso behar da.

ARRATE BASERRIKO JABEEK

Arrate Baserriko Jabeek, H20550323 NIF zenbakidutenak, 2001eko Apirilaren 6ean eskaria aurkeztu dutela; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, Zubiondo Baserria (Arrate Baserria bezala ezagutzen dena) eta Etxeatzea izeneko, 141,15 m² dituen lursail baten bereizketa egiteko.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. artikuluen gaineko Testu Bateratua onartzean da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketa ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, zatiketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

2001eko MARTXOAKO IKASTAROTAKO ERROLDA ONARTZEA

Jose Antonio Mintegi Arrate, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakari Jaunak 2001eko Apirilaren 4ean ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2001 urteko martxoari dagokion Ikastaroetako errolda iadanik egina dago joan den urteko alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. Denetara 33 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 67.250,- pezeta.

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2001eko MARTXOAKO IKASTAROTAKO ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik Udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Legea Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikulua dion bezela.

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA

GAIA: Agustín Goikoetxeaundia Pagola Jaunak landaturiko pinuak kentzeko lanen gauzatze subsidiarioa.

IKUSIRIK.- Alkatetzaren 2001eko Otsailaren 7ko ebazpena. Horren bitartez, Agustín Goikoetxeaundia Pagola Jaunari landaturiko pinuak kentzeko beste epe bat eman zitzaion; dena den, agindutakoa bete ezean, Udalak gauzatze subsidiarioaren ohartarazpena eman zuen eta bete behar duenaren kontura litzateke.

IKUSIRIK.- Jadanik aipatuta dauden lanak egiteko espediente administratiboa. Hasiera eman zitzaion 1999ko urriaren 28ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez.

GERTAKARIAK.- Agustín Goikoetxeaundia Pagola jn.ak, 1999ko azaroaren 25ean, urriaren 28ko Alkatetzaren Dekretua dela eta, berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen. Atzera bota egin zen 1999ko abenduaren 20ko dekretu berri baten bitartez eta 15 eguneko beste epe bat eman zitzaion landaturiko pinuak kentzen zitzan.

GERTAKARIAK.- Goikoetxeaundia jn.ak azken dekretu hori dela eta, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Donostiako Auzitegian; 125/00 Ohiko Prozedura. 2000ko azaroaren 27an epaia eman zen eta bertan, Lizartzako Alkatetzaren Dekretuak legeei lotutzat eman ziren, hain zuzen ere, 1999ko urriaren 28koa eta 1999ko abenduaren 20koa. Haiek, errekurtsoa jarri zutenek landaturiko pinuak kentzeko agindua ematen zuten, gauzatze subsidiarioaren ohartarazpen pean.

GERTAKARIAK.- Ohartarazpenak eta jadanik finkoa den sententzian agertutakoa azaldu arren, Goikoetxeaundia jn.ak ez zituen landaturiko pinuak kendu. 2001eko otsailaren 7ko Alkatetzaren Dekretu bidezko beste epe bat izan ostean, eta egin beharreko lanen zenbatekoa 26.000 pezetakoa izanik, gauzatze subsidiarioa egin da eta Udalak kendu ditu pinuak 2001eko apirilaren 7an.

GERTAKARIAK.- Lanak egiteko aurrekontua hogeita sei mila pezetakoa da (26.000).

ZUZENBIDE OINARRIAK.- Hirigintza Diziplinaren Araudiko 10. artikuluan agindutakoa. Ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuan onetsi zen (27. eta 28. EBOk, 1979ko urtarrilaren 31koa eta otsailaren 1ekoa).

ZUZENBIDE OINARRIAK.- Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikuluan agindutakoa. Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea da (azaroaren 27ko 285. EBO).

ZUZENBIDE OINARRIAK.- Hartarako Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Araudian agindutakoa. Apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuz onetsi zen (apirilaren 29ko G.A.O.)

eta maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretuz aldatu.

Alkatetza-Lehendakaritza honek,

ERABAKI DU

Lehenik.- Agustín GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA Jaunari behin betiko likidatzea hogeita sei mila pezeta (26.000).

Bigarrenik.- Agustín GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA Jaunari jakinaraztea, aipatutako zenbatekoa Udal Diruzaintzan sartu beharko duela irekita dagoen bilketa kontu honetan:

2101.0053.75.0002206308

Ebazpenaren berri hilabete honen 1 eta 15 egunen artean jasoz gero, dirua sartzeko epea jakinarazpenaren egunetik hurrengo hilabeteko 10era bitartekoa izango da.

Jakinarazpena hilearen 16a eta azken eguna artean jasoz gero, ordainketarako epea jakinarazpenaren egunetik hurrengo hilabetearen 25era luzatuko da.

Dirua era boluntarioan sartzeko epea amaituz gero, kobratzea premiazko prozeduraren bitartez gauzatuko da.

Hirugarrenik.- Agustín GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA Jaunari ebazpen honen berri eman eta adieraztea, horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duela Donostiako Auzi Administraziorako Epaitegian, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Alkatezari, argitaratu edo, kasuan bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

MANUEL BARRIOLA TOLOSA

GAIA: Manuel Barriola Tolosa Jaunak landaturiko pinuak kentzeko lanen gauzatze subsidiarioa.

IKUSIRIK.- Alkatetzaren 2001eko otsailaren 7ko ebazpena. Horren bitartez, Manuel Barriola Tolosa Jaunari landaturiko pinuak kentzeko beste epe bat eman zitzaion; dena den, agindutakoa bete ezean, Udalak gauzatze subsidiarioaren ohartarazpena eman zuen eta bete behar duenaren kontura litzateke.

IKUSIRIK.- Jadanik aipatuta dauden lanak egiteko espediente administratiboa. Hasiera eman zitzaion 1999ko urriaren 28ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez.

GERTAKARIAK.- Manuel Barriola Tolosa jn.ak, 1999ko azaroaren 25ean, urriaren 28ko Alkatetzaren Dekretua dela eta, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zuen. Atzera bota egin zen 1999ko abenduaren 20ko dekretu berri baten bitartez eta 15 eguneko beste epe bat eman zitzaion landaturiko pinuak kentzeko zitzan.

GERTAKARIAK.- Barriola jn.ak azken dekretu hori dela eta, Administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zuen Donostiako Auzitegian; 125/00 Ohiko Prozedura. 2000ko azaroaren 27an epaia eman zen eta bertan, Lizartzako Alkatetzaren Dekretuak legeei lotutzat eman ziren, hain zuzen ere, 1999ko urriaren 28koa eta 1999ko abenduaren 20koa. Haiek, errekurtsua jarri zutenek landaturiko pinuak kentzeko agindua ematen zuten, gauzatze subsidiarioaren ohartarazpena.

GERTAKARIAK.- Ohartarazpenak eta jadanik finkoa den sententzian

agertutakoa azaldu arren, Barriola jn.ak ez zituen landaturiko pinuak kendu. 2001eko otsailaren 7ko Alkatetzaren Dekretu bidezko beste epe bat izan ostean, eta egin beharreko lanen zenbatekoa 104.000 pezetakoa izanik, gauzatze subsidiarioa egin da eta Udalak kendu ditu pinuak 2001eko apirilaren 7an.

GERTAKARIAK.- Lanak egiteko aurrekontua ehun ta lau mila pezetakoa da (104.000).

ZUZENBIDE OINARRIAK.- Hirigintza Diziplinaren Araudiko 10. artikuluan agindutakoa. Ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuan onetsi zen (27. eta 28. EBOk, 1979ko urtarrilaren 31koa eta otsailaren 1koa).

ZUZENBIDE OINARRIAK.- Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikuluan agindutakoa. Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea da (azaroaren 27ko 285. EBO).

ZUZENBIDE OINARRIAK.- Hartarako Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Araudian agindutakoa. Apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuz onetsi zen (apirilaren 29ko G.A.O.) eta maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretuz aldatu.

Alkatetza-Lehendakaritza honek,

ERABAKI DU

Lehenik.- Manuel BARRIOLA TOLOSA Jaunari behin betiko likidatzea hogeita ehun ta lau mila pezeta (104.000).

Bigarrenik.- Manuel BARRIOLA TOLOSA Jaunari jakinaraztea, aipatutako zenbatekoa Udal Diruzaintzan sartu beharko duela irekita dagoen bilketa kontu honetan:

2101.0053.75.0002206308

Ebazpenaren berri hilabete honen 1 eta 15 egunen artean jasoz gero, dirua sartzeko epea jakinarazpenaren egunetik hurrengo hilabeteko 10era bitartekoa izango da.

Jakinarazpena hilearen 16a eta azken eguna artean jasoz gero, ordainketarako epea jakinarazpenaren egunetik hurrengo hilabetearen 25era luzatuko da.

Dirua era boluntarioan sartzeko epea amaituz gero, kobratzea premiazko prozeduraren bitartez gauzatuko da.

Hirugarrenik.- Manuel BARRIOLA TOLOSA Jaunari ebazpen honen berri eman eta adieraztea, horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duela Donostiako auzi administrazioarekiko epaitegian jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Alkatetzari, argitaratu edo, kasuan bada, jakinerazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

ESKOLAKO OBRAK

“JUAN XXIII herri ikastetxean ondoren adieraziko diren obrak egiteko asmoa dago:

- Eskoletako Gelen banaketa berriak egin. Komunak berritu. Leihoak aldatu. Liburutegi berria egin. Argieria aldatu. Pintaketak e.a.

Hezkuntza Sailak aurkeztutako planu eta aurrekontuaren arabera, obra hoierekin, 15.469.382,- pezetakoa da, eta Sail horrek luzatutako, 2001eko Martxoaren 6ko Aginduaren arabera, Udalarari, 6.961.222,- pezeta jartzea legokioke.

Hezkuntza Saila bera arduratu da, Ikastetxe horretarako beharrezkoa ikusi den planifikazio berriaren arabera, bai planu eta baita ere aurrekontuak egitea eta Apirilaren 24 arte, Udal honek ez du jakin, ez zer plan zegoen Ikastetxe horretarako eta ezta ere bere kostua zenbatekoa izango zen.

Lizartzako Udalak, 2001eko Otsailaren 19an onartu zuen, 2001 urteko Aurrekontuan, ez da inolako partidarik aurrikusi, JUAN XXIII Ikastetxean egin behar diren obrentako.

Beraz, hori guztia aztertuta

DEKRETATU DU

- 1.- JUAN XXIII Ikastetxean egin behar diren obren aurrekontu osoaren kargu egiteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzea.
- 2.- Espedientea osatu ondoren, obre horiek gauzatzeko eskaera egitea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

2001eko APIRILAKO IKASTAROTAKO ERROLDA ONARTZEA

Jose Antonio Mintegi Arrate, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakari Jaunak 2001eko Apirilaren 27an ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2001 urteko apirilari dagokion Ikastaroetako errolda iadanik egina dago joan den urteko alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. Denetara 33 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 67.250,- pezeta.

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2001eko APIRILAKO IKASTAROTAKO ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik Udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Legea Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikulua dioen bezela.

2001 URTEKO LEHEN HIRUHILABETEKO ZABORREN ERROLDA

Jose Antonio Mintegi Arrate, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakari Jaunak 2001eko Apirilaren 27an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2001 urteko 1. Hiruhilabeteari dagokion Zaborren errolda iadanik egina dago joan den urteko alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. Denetara 186 erreziro dira eta kobratu beharreko kopurua, 296.000,- pezeta.

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2001eko 1. HIRUHILABETEKO ZABORREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

2001 URTEKO LEHEN HIRUHILABETEKO URAREN ERROLDA

Jose Antonio Mintegi Arrate, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakari Jaunak 2001eko Apirilaren 27an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2001 urteko 1. Hiruhilabeteari dagokion Uraren errolda iadanik egina dago joan den urteko alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. Denetara 237 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 509.213,- pezeta.

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2001eko 1. HIRUHILABETEKO URAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

ARRATE BASERRIKO JABEEK

Arrate Baserriko Jabeek, H20550323 NIF zenbakidutenak, 2001eko Maiatzaren 16ean eskaria aurkeztu dutela; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, Artetxe-Aldea izeneko, 8.938 m² dituen lursail baten bereizketa egiteko.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. artikuluan aurrikusitakoaren arabera (horren bidez lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. artikulua gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketa ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

PABLO MINTEGI BETELU

Pablo Mintegi Betelu Jaunak, 15.218.181 NAN. zenbakidunak, 2001eko Maiatzaren 16ean eskaria aurkeztu dutela; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, Magdalena Buru izeneko, 3.687 m² dituen lursail baten bereizketa egiteko.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. artikuluan aurrikusitakoaren arabera (horren bidez lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinarean Erregelamenduaren 1. artikulua gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketa ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

FRANCISCO OLAETXEA KARRERA

Kale Nagusia, 17 – 2.en bi etxeekin bat egiteko BAIMENA ematen da, baldintza hauekin:

- Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadari, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

- Behin obra bukatuta, antolakuntza berriaren oinplanua aurkeztea eskatzen da.

LORENZO BARRIOLA TOLOSA

Lardi Baserriaren ondoko txabolari estalkia aldatzeko BAIMENA ematen da, baldintza hauekin:

- Obra egiterakoan, biltegiaren dimentsioak bere hortan mantendu beharko dira eta estalkia, Arau Subsidiarioen 19. artikulua arabera, teila keramikozkoa edo antzeko materialekoa izango da.

AGUA DE INSALUS S.A.

Ontziratze Plantaren teilaberritzea eta kalitatea kontrolatzeko laborategiaren eraberritze lanen salbuespen egiaztagiriaren eskaria aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

Eskatutako Salbuespen Egiaztagiria EZ LUZATZEA, arrazoi hauengatik:

- Obra guztiek, nahiz sumeak nahiz nagusiak, Udaletxearen baimena behar dute.
- Fatxadaren antolakuntzan, eraikinaren egituran edo instalakuntza nagusietan eragin nagusirik ez duten obrak, Obra Xumeak bezala kontsideratzen dira eta baimena, lizentzia ordaindu gabe ematen zaie.
- Kasu honetan egindako obrak xumeak kontsidera daitezke ziurrenik, baina kontsiderazio hori Udaletxeak erabaki behar du baimen eskarian ematen den informazioaren arabera eta hau nahikoa ez balitz, bertara ikustaldia eginez.

Guzti horren arabera, Baimen eskaria aurkeztu beharko da baimena emateko.

ARATZ MUJIKA BARANDIARAN

IKUSIRIK.- ARATZ MUJIKA BARANDIARAN Jaunak, Herri honetako Baratza baserri berria egiteko, Rodrigo Garcia Baranda Arkitekto Eragileak osatutako, gauzatze proiektua aurkeztuaz, eginiko obratako baimen eskaera.

IKUSIRIK.- Teknikariek eginiko txostenak.

Horren arabera, zera

ERABAKI DUT: ARATZ MUJIKA BARANDIARAN Jaunak, aurkeztutako gauzatze proiektuaren arabera, Herri honetako Baratza baserri berria egiteko obrak gauzatzeko, BAIMENA ematea.

BALDINTZAK

- 1.- Ebazpen hau, hirugarren baten jabetza errespetatu eta horren kalterik gabe luzatzen da.
- 2.- Indarrean dauden lege eta araudiek ezarritako segurtasun neurri guztiak bete beharko dira.
- 3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.
- 4.- Ebazpen hau luzatzeaz, ez du ematen inolaz ere, IGOKA behar duten akitibitate edo establezimenduen irekiera baimenik.

5.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko da. Obren luzapena, 8 hilabetetan irizten da.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasun beharko du.

6.- Obrak bukatu ondoren eraikuntzaren lehen erabilpena aurkeztu behar da honako dokumentazioarekin:

- Obra amaieraren ziurtagiria, obraren benetazko kostoa adierazita.
- Fatxaden argazkia 13x18 neurrian atzetik arkitektoak sinatuta.
- Kokapen planoan hiri zerbitzuen hartuneak adierazita.
- Obra berri aitopenenaren eskrituraren kopia xumea.
- Iberdrolaren Buletina.
- Hiri Zergabilketan alta berria (U-4 Orria).

8.- BAKE EPAILE ETA ORDEZKOAREN IZENDAPENAK

Botere Judizialeko Lege Organikoko 101 artikulua xedatzen duenaren arabera, Udalbatzarrak Bake Epailera eta bere ordezkoa hautatu behar ditu, ondoren Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza-Auzitegi Gorenak izendapenak egiteko.

Kontutan hartuaz, iragarkien bidez, jendaurrean egon dela, izena emateko epea zabalduaz eta epe horretan ez dela inor agertu.

Kontutan harturik, aurrez postu hori betetzen ziztuztenak, hau da: HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA eta MARTIN MENDIA ALTUNA Jaunak, prest agertu direla, bertan jarraitzeko, proposatzen da:

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza-Auzitegi Gorenari, Bake Epailera posturako, HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA eta Bake Epailera Ordezkorako: MARTIN MENDIA ALTUNA Jaunak izendatzeko proposamena luzatzea.

Eztabaidatu ondoren, proposamena, aho batez onartu da.

9.- ESKOLAKO OBRAREN AURREKONTUAREN ONARPENA

Lizartzako JUAN XXIII herri ikastetxean ondoren adieraziko diren obrak egiteko asmoa dago:

- Eskoletako Gelen banaketa berriak egin, Komunak berritu, Argiteria aldatu, Pintatu e.a.

Obra hoiak egiteko Aurrekontua, Construcciones Iñadi, S.A.L. etxeak aurkeztua, SEI MILIOI SEIEHUN ETA HIRUGEITA BOST MILA (6.665.000,-) pezetakoa da.

Lizartzako JUAN XXIII herri ikastetxean egin behar diren obrentzako, Aurkeztutako Aurrekontua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,